

**6/98 IRIZPENA****GAZTE LANGABETUEI ZUZENDUTAKO ENPRESA-JARDUERETAKO ENPLEGU-  
HEZIKETAKO PROGRAMA ARAUPETU DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKO  
IRIZPENA**

Ekainaren 27ko 9/1997 Legeak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eratzikitako eskumenekin eta haren Funtzionamendu Araudian ezarritako prozedurarekin bat etorririk, Batzordearen Osoko Bilkurak, 1998ko irailaren 30eko bileran, honako hau onetsi du:

***IRIZPENA*****I.- AURREKOAK**

1998ko irailaren 1ean sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren idazkia. Idazki horren bitartez, sail horrek gazte langabetuei zuzendutako enpresa-jardueretako Enplegu-Heziketako Programa araupetu duen Dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zuen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk.

Berehala bidali zitzairen Dekretu-proiektuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkuraren kide guztiei, zertarako-eta haiek egokietsiko zituzten proposamenak eta iritziak bidaltzeko eta iritzi eta proposamenok Batzorde Iraunkorrari edo Lan Batzorde egokiari bidaltzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoarekin bat etorririk.

1998ko irailaren 16an lan-bilerara bildu zen Gizarte Garapenerako Batzordea. Irizpen-proposamena egin zuen. Proposamen hori Batzorde Iraunkorrari bidali zitzaion aztertzeko eta, hala denean, onesteko eta Batzordearen Osoko Bilkurari bidaltzeko. Osoko bilkura horrek, 1998ko irailaren 30eko bileran, hura onestea erabaki zuen irizpen honen bukaeran aipatuko diren norberaren botoen bitartez.

**II.- EDUKIA**

Gazte langabetuei zuzendutako enpresa-jardueretako Enplegu-Heziketako Programa araupetu duen Dekretu-proiektuaren testuak honakook ditu osagai: zioak erakustea, hogeita bi artikulua, Bi Xedapen Gehigarri, Xedapen Iragankor Bakarra eta lau Bukaerako Xedapen.

## Zioak erakustea:

Zioen erakusketak Dekretuaren helburua bildurik du. Helburu hori honako hau da: Eusko Jaurlaritzak gazteen gogo ekintzailea pizteko eman ahalko dituen laguntzak araupetzen dituen Enplegu-Heziketako Programa eratzea. Bertan sartuta daude informazioa, orientazioa eta motibazioa, eta prestakuntza okupazionala eta lan-esperientzia. Gainera, bertan sartuta daude laneko prestakuntzarekin eta esperientziarekin lotutako enpresa-proiektuaren azterketa eta kudeaketa-plana.

Bertan nabarmenduta dagoenez, programa hori funtsean Toki Erakunde bitartez bideratuko da eta erakunde eskatzaileek beren Proiektuak zona etsietan eta langabezi tasa altuko udalerrietan oinarritu beharko dituzte. Haien autonomiako enpresa-jarduera Enplegu-toki Berriak direlakoekin lotutako zerbitzuetakoa izan daiteke.

Era berean, bertan zehaztuta daude dekretu honen babesean egindako kontratazioek izan beharko dituzten ezaugarriak.

Beste alde batetik, bertan adierazita dago nola ezarri duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretuak dirulaguntzak araupetzen dituzten arauak izan behar duten gutxieneko edukia. Hori dela eta, aurkeztutako Dekretuak gauza berri horiek sartu ditu. Aipatutako Legegintzazko Dekretuaren bitartez onetsi ziren Euskal Herriko Ogasun Orokorren Abiaburu Antolatzaileak.

## Artikulu eta xedapenak:

**Lehenengo artikulua** Dekretuaren helburua zehazturik du. Dekretuaren helburua honako hau da: gazte langabetuei zuzendutako enpresa-jardueretako Enplegu-Heziketako Programa araupetzea. Programa horren bitartez antolatu gura dira Eusko Jaurlaritzak gazteen gogo ekintzailea pizteko eman ahalko dituen laguntzak. Programa eta laguntzok Hasierako Erakusketan aipatutako eran araupetu behar dira.

**Bigarren artikulua** zehaztuta daude Dekretuan dauden laguntzak atzitu ahal dituzten erakundeak eta berauek bete beharko dituzten beharkizunak.

**Hirugarren artikulua** zehaztuta daude erakunde eskatzaileek aurkeztutako proiektuek bete beharko dituzten beharkizunak. Era berean, bertan aipatu eta zehaztuta daude proiektuen garapenaren ondoretarako etsizat edo/eta langabezi tasa altukotzat hartuko diren zonak eta udalerrak.

**Laugarren artikulua** dekretu honen ondoretarako Enplegu-toki Berrizat hartuko diren jarduerak xedaturik ditu.

**Bosgarren artikulua** Proiektuak hautatzeko ezartzen diren irizpideak zehazturik ditu.

**Seigarren artikulua** ezarrita daude Dekretuaren babesean egindako kontratazioen ondoretarako pertsona hautagaiak bete beharko dituzten beharkizunak.

**Zazpigarren artikulua** zehazturik dago pertsona hautagaiak hautatuko diren era.

**Zortzigarren artikulua** honakook ditu xedaturik: diruz lagundu ahalko diren ekintzak eta programa horren markoan izenpetutako lan-kontratuak bete beharko dituzten ezaugarriak.

**Bederatzigarren artikuluan** zehaztuta daude dekretu honi jarraiki eman ahalko diren dirulaguntzen zenbatekoa eta beronen banakapena.

**Hamargarren artikuluan** ezarrita daude eskabideak aurkezteko era eta epea.

**Hamaikagarren artikuluan** zehaztuta dago Dekretuan ezarritako laguntzen menpean jarri nahi duten erakundeek aurkeztu behar duten manuzko dokumentazioa.

**Hamabigarren artikuluan** aipatuta daude eskabideetako akatsak zuzentzeko ezarritako arautegia eta, hala denean, beharrezko espedienteen artxiboa.

**Hamahirugarren artikuluan** zehaztuta dago Dekretura bildutako laguntza-deialdiaren kudeaketa-, ebazpen-, errekurtsio- eta publizitate-prozedura.

**Hamalagarren artikuluan** aipatuta dagoenez, Dekretuan ezarritako laguntzak emateari buruzko Ebazpenean Europako Sozietate Fondoaren finantzakidetzak agertaraziko da.

**Hamabosgarren artikuluan** ezarrita dago dirulaguntza ordaintzeko era, diruz lagundutako ekintzaren arabera; baita erakunde onuradunaren justifikaziorako era eta epea ere.

**Hamaseigarren artikuluan** aipatuta daude Dekreturako baliabide ekonomikoak eta berauen muga. Artikulu horrek Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidetara bidaltzen gaitu.

**Hamazazpigarren artikuluan** ezarrita dagoenaren arabera, erakunde eskatzaileek zergekin, lanarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Herri Dirulaguntzekin lotutako betebeharrak bete beharko dituzte.

**Hamazortzigarren artikuluan** aipatuta daude laguntzen erakunde onuradunen betebeharrak. Bertan nabarmenduta dago Euskal Herriko Ogasun Orokorren Abiaburu Antolatzaileei buruzko Legearen Testu Bateratua.

**Hemeretzigarren artikuluan** nabarmenduta dagoenez, Dekretuko laguntzak ezin dira helburu eta jomuga bera duten Eusko Jaurlaritzaren laguntzekin edo beste Herri Administrazio batenekin bateratu.

**Hogeigarren artikuluan** ezarrita dago dirulaguntza adjudikatu zen baldintzak aldatuz gero dirulaguntza emateko Ebazpena aldarazteko ahalbidea.

**Hogeita batgarren artikulua** Enplegu eta Heziketako zuzendariari ahalmena eman dio kobratu gabe dauden kopuruak jasotzeko eskubidearen galera edo jasotakoen itzulketa adierazteko, Erakunde onuradunak Dekretuan eta aplikatu ahal diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak bete ezean. Bereziki aipatuta daude Euskal Herriko Ogasun Orokorren Abiaburu Antolatzaileei buruzko Legearen Testu Bateratua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

**Hogeita bigarren artikuluan** ezarrita dago aplikatu ahal diren arauak bete ezean emandako laguntzak itzultzeko prozedura.

**Lehenengo Xedapen Gehigarrian** zehaztuta dagoenez, Dekretuan ezarritako langile-kostuetan ez da kontutan hartuko, dirulaguntzaren kalkularen ondoretarako, Euskal Herri

Administrazioaren zerbitzurako langileentzat finkatutakoa baino ordainsari-gehikuntza handiagorik.

**Bigarren Xedapen Gehigarriak** Heziketa eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Publikoa den EGAILAN, S.A.ri ahalmena eman dio Dekretuaren arabera diruz lagundutako ekintzen jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzeko, ekintza horiek baimentzen dituzten arauak zehaztuz.

**Xedapen Iragankor Bakarrean** zehaztuta dagoenez, aurtengo eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da. Epe hori Dekretua indarrean jartzen denean hasiko da zenbatzen. Hori guztia Laugarren Bukaerako Xedapenean aipatuta dago.

**Lehenengo Bukaerako Xedapenak** Dekretuan ezarrita ez dauden gazetan aplikatu ahal den araubide ordeztalea ezarririk du.

**Bigarren Bukaerako Xedapenak** Dekretuaren kontra aplika daitezkeen errekurtsoen prozedura ezarririk du.

**Hirugarren Bukaerako Xedapenak** Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko buruari ahalmena eman dio Dekretua garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak hartzeko.

**Laugarren Xedapen Gehigarriak** zehazturik duenez, Dekretua berau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

### **III.- OHARRAK**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 1998ko irailaren 30eko osoko bilkuraren akordioaren arabera, ez du gazte langabetuei zuzendutako enpresa-jardueretako Enplegu-Heziketako Programa araupetu duen Dekretu-proiektuarekiko ohar berezirik bereganatu. Eraskinera kontseilari batzuen boto bezala bildutako oharrak bakarrik bereganatu ditu.

### **IV.- ONDORIOAK**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egoki deritza gazte langabetuei zuzendutako enpresa-jardueretako Enplegu-Heziketako Programa araupetu duen Dekretuaren tramitazioari.

Bilbon, 1998ko irailaren 30ean

OE Burua,

Idazkari nagusia,

Javier Mongelos Oquiñena

Javier Hernandez Bilbao

**NORBERAREN BOTOA****UGT-KO ORDEZKARIA ATXIKI ZAION CC.OO.-EKO ORDEZKARIAK EGINDAKOA**

Gazte langabetuei zuzendutako enpresa-jardueretako Enplegu-Heziketako Programa araupetu duen Dekretu-proiektuari buruzko txostena.

Jakinarazi gura dugun lehenengo gogoeta bezala esan behar dugu ezen gazteenganako ekimen honek Euskadiko Autonomi Elkarteko enplegu-plan global batean sartuta egon behar duela eta ekintza bakoitzak multzoan zentzua izan behar duela.

Proiektuaren 6. artikuluan aipatuta dagoen Luxemburgeko Gailurrak gidalerro batzuk jorraturik ditu eta gizarte agenteekiko neurriei buruzko akordioa gomendatzen du. Orientazio hori Eusko Jaurlaritzak gaitzetsi du, zeinek orain Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari neurri partziala aztertzeke dei egin baitio, hura zuzentzen zaion taldeak eta jarduteko erabili gura diren zonek oso arreta handia behar izan arren ere. Lehentasun bi horiek (gazteak eta zonak) konpartitzen ditugu.

Era berean, langabeziaren arazoak ukitutako lehenengoak diren sindikatu eta ugazabekiko benetako negoziatorik egon gabe hiru partaidetza-organo ezberdinetan aztertua izateko arriskua duen dekretuaren zentzuari buruzko eztabaida planteatu gura da.

Bigarren hausnarketa bezala, aurrekoaren ildotik, esan behar dugu ezen, beharbada, gazteei zuzenduta dauden eta norabideanitzak diren enplegu jarduketak globalki planteatu behar direla. Jarduketa horiek ez dute "ekintzaileen" edo enpresari berrien belaunaldiari bakarrik zuzenduta egon behar, nahiz eta horrelako ekimenak ere beharrezkoak izan.

Ekintza-aniztasun hori amankomuneko jasotzaileekin (25 urtetik gorako pertsonekin) planteatzeko aukera ere ikusi egin behar da. Horretarako, Dekretuaren zentzua aldatu beharra dago: Dekretuarekin pertsona gazteentzako benetako enplegu-plana estali behar da.

Era berean, murriztaile deritzogu Dekretuan aipatuta dauden ekintzetan parte har dezaketen erakundeei egiten zaien aipuari. Izan ere, Lan Sailak homologatutako erakundeak bakarrik daude aipatuta. Egin-eginean, erakunde batzuek egiaztatutako esperientzia dute eta gazteei zuzendutako lanerako ekintzak garatzen izan dituzte, autoenpleguarenak barne, bertan agertzen direnak.

Enpleguaren herri zerbitzuekiko erlazioa ez dago zehaztuta. Hori dela eta, ustez berdina da bera Langairekin zein Inemekin jorratzea. Hala ere, egungo bikoiztasun-egoera baliozkoa izan daiteke hautagaiak eskatzerakoan, baina, edozein kasutan, beharrezkoa bide da Inemek, langabetuen egungo legezko erregistro bezala, ekimenetakoren baten zati izatekoa den edozein langabe erregistraturik izatea.

Haiek talde homogenea osatzeari buruzko 3.d artikuluko beharkizunak honako hau bide du helburu nagusi: artikuluko b beharkizuna lortzea baino areago prestakuntza hobetzea: "enplegu toki berriekin lotutako zerbitzuetan enpresa-jarduera autonomiaduna buru

*dezaketenak". Zaila bide da horrelako hasierako plantila bat duen enplegu-toki berrietako enpresa bat toki eremu batean. Horregatik ondoriozta daitekeenez, enpresak zerbitzu ezberdinek zuzenduko dituzte. Hortaz, haiek prestakuntza bereizi eta urriki homogeneousak izan ditzakete.*

*Ez dakigu zeri dagokion langileen ordezkariaren hautatze-prozesuko partaidetzari buruzko 7.2 artikulua. Erakunde kontratugileari badagokio, ados gaude, baina gehiago azaldu beharra dago.*

*8.a artikuluan ezarrita dauden informazio-, orientazio- eta motibazio-ekintzak ez bide dira nahiko eraginkorrak izateko. Hala ere, nahiko izan daitezke hautagai dagoeneko motibatua ezartzen dituen hautaketa burutu nahi bada.*

*Bilbon 1998ko irailaren 15ean*

**NORBERAREN BOTOA****CC.OO.-EKO ORDEZKARIA ATXIKI ZAION UGT-KO ORDEZKARIAK EGINDAKOA**

“Luxemburgetako Gailurreko” zuzentarauak ez omen dagozkio gazteen **KONTRATAZIOARI** bakarrik, baita **LANERATZEAREN** beste aldiei ere. Aldi horiek honakook dira: Informazioa, Orientazioa eta Motibazioak: **P** Heziketa, **P** Bitartekaritza, **P** Lanpostua.

Ohar horrek, kontutan hartua izanez gero, Dekretua gazte eskatzaileen Lanerapena lortzeko lau jardueri irekiko die.

**PROPOSAMENA:**

Zioen Erakusketak eta Dekretuaren artikuluek eta xedapenek enpresa-jardueretako Enplegu-Heziketako Programa araupetzeko balizkoa (1. art.- Helburua, lehenengo eta bigarren lerroak) Lan Esperientzaren eta Prestakuntza Okupazionalaren Informazio-, Orientazio- eta Motibazio-balizkoetara (1. artikulua horretan araupetutako kontzeptuetara) zabaltzea edo aldaraztea. Horrela, eremuetako bakoitza edo horiek guztiak garatu ahalko dira osotasun-marko batean, orain arte egin izan den bezala.

Bilbon, 1998ko irailaren 30ean

**NORBERAREN BOTOA****CC.OO.-EKO ETA UGT-KO ORDEZKARIEK EGINDAKOA, KOOPERATIBEN  
ORDEZKARIAREN PLANTEAMENDUAK BERENGANATUZ**

*Planteamenduak aipatuta dauden artikuluen atal batzuei buruzkoak dira. Atal horiek honakook dira:*

1. Diruz lagun daitezkeen Ekintzak

*Dekretu-proiektuaren testuko 8. artikuluan ezarrita daude diruz laguntzeko modukotzat hartutako ekintzak. Bertako d) atalean nabarmenduta daude “harpidetu beharreko lan-kontratuak”. **“Sozietate-kontratuak”** ez daude ekintza horren barruan sartuta.*

*Gure ustez, bazkide langileen kontratazioa ahalbidetu behar da, lanekoa barik sozietateko erlazioa dena. Bestela, lan elkartuko kooperatibek ezin izango dute bazkide langilerik kontratatu. Erakunde horiek, dekretu honen proiektuaren 2.1.c. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradun potentzialak dira. 8.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, ezin izango lituzkete sozietate-kontratazio horiek egin.*

2. Dirulaguntzen Zenbatekoa

*Dekretu-proiektuaren 9. artikuluan ezarrita daude dekretu honi jarraiki eman ahalko diren dirulaguntzen zenbatekoa. Haren 1.c) atalera bilduta dagoenez, diruz lagundu ahalko dira “kontratutako langileen soldatak eta Gizarte Segurantzaren kuotak...”. **“Lan-aurrerakinak”** eta **“bazkideak abonatuko duen autonomo-kuota”** ez daude bertan sartuta.*

*Zentzu horretan nabarmendu behar denez, bazkide langileek ez dute soldatarik jasotzen, lan-aurrerakinak baizik; eta, horregatik sartu behar da kontzeptu hori. Halaber, kontutan hartu behar da ezen kooperatiba batek bazkide langileak langile autonomiadunen araubide berezian atxikitzea aukera dezakeela.*

3. Dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko era

*Dekretu-proiektuaren 15. artikulua dirulaguntza ordaintzeko era ezarri du, baita hura justifikatzeko era eta epea ere. 2. atalean nabarmenduta dago “soldata-kostuei lotutako dirulaguntzaren ordainketa...”, soldata-kostuez gain, **“lan-aurrerakinak”** bertan sartuta ez daudelarik. Halaber, atal honetan zehaztuta dauden formuletan nabarmenduta dagoenez, “behar bezala erregistratutako lan-kontratuen kopia...” aurkeztu behar da. Hala denean, **“sozietate-kontratuaren kopiarik”** ez dago bertan sartuta.*

*Beste alde batetik, 3. atalean ezarrita dagoenez, “erakunde onuradunak soldata-kostuei lotutako ziurtagiria, kontratutuen nominen kopia eta Gizarte Segurantzarenganako kotizazioko orrien kopia bidali beharko ditu”. Aipatutakoaz gain, honakook ez dira sartuko: **“lan-aurrerakinen kostuei lotutako ziurtagiria, lan-aurrerakinen ordainagirien kopia eta autonomo-araubide bereziarekiko kotizazio-ordainketako orrien kopia”**.*

*Zentzu horretan nabarmendu behar denez, kooperatibetan ez dago soldata-kosturik eta horrelakoen kontzeptua lan-aurrerakinena da. Kooperatibetan bazkide langileek ez dute lan-kontraturik, sozietate-kontratuak baizik. Kooperatibek ez dute bazkide izateagatiko nominarik*



*ematen, lan-aurrerakinen ordainagiriak baizik. Kooperatiba batean, Gizarte Segurantzaranganako kotizazioa Autonomo-araubide Berezikoa edo Orokorrekoa izan daiteke.*

*Azaldutako guztiarengatik, dekretu honen Dekretu-proiektuaren arabera lan elkartuko kooperatibek eta bestelako batzuek ezin dituzte bertan aipatuta dauden onura eta laguntzak atzitu.*

*Hori harrigarria da, kontutan hartzen badugu ezen Erakunde Pribatu bezala gizarte zerbitzuen prestazioan elkarlanean ari diren Sozietate Kooperatiboak daudela, urriaren 18ko eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 57/1996 Legean ezarritakoarekin bat etorririk eta dekretu-proiektu horren 2.1.c) artikulua agintzen duen bezala. Baina are harrigarriagoa da itxuraketa juridiko horri (kooperatibei) Dekretuaren proiektu honetan eta berau zuzentzen zaien taldeentzako irizpenean horretarako ezarrita dauden beharkizunekin sozietate-kontratazioak egin ezin izatea.*

*Adierazitako argudioak errepikatu behar ditugu. Izan ere, gure ustez, irizpenak kooperatibak baztertzeko eta sozietate-kontratazioa diruz lagun daitekeen jarduketa bezala bertatik kanpo utzi. Egin-eginean, lan-kontratazioa bakarrik ahalbidetuta dago diruz lagundutako jarduketa bezala. Gainera, horretarako muga bat dute kooperatibek. Muga hori ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 99.4 artikulua dakar. Lege hori Euskadiko kooperatibei buruzkoa da.*

*Bilbon, 1998ko irailaren 30ean*